

## **UPV/EHUko Buddyaren eginkizunak**

1. Ikasle bisitatzailearekin harremanetan jarri, zeure burua aurkezteko eta Euskadira iritsiko den data jakiteko (aurkezpen mezuaren eredia).
2. Joan zaitez bisitatzailearen bila zure hiriko tren edo autobús geltokira. Posible baldin bada, aireportura joatea hoberena izango litzateke.
3. Ostatura lagundu ezazu ikasle bisitatzailea, zure hiriko garraio publikoari buruzko argibideak ematen diozun aldi berean.

AUKERA ONA: Denbora pixka bat badaukazu, buelta bat ematea edo kafetxo bat hartzea oso ideia ona da, zuen artean konfidantza giroa lortzeko. Halaber, bisitatzaileari gehien kezkatzen duten gauzak ere jakituko duzu: hautatuko dituen ikasgaiak, alokairua bilatu, dirua...

4. Zure Campuseko Help Centrerrera lagundu ezazu bisitatzailea; hor, Nazioarteko Hedakuntzako langileek alokairuari dagokion aukerak emango diote. Bestalde, UPV/EHUK antolaturiko hizkuntza ikastaro, kirol zerbitzua eta hainbat zerbitzuari buruzko informazioa ere emango zaio.

5. Ikastegiko mugikortasun koordinatzailea ikusi beharko du bisitatzaileak iristen denean: lagundu ezazu bisita honetan, hemengo tutorea ezagutzera.

6. Beste izapide garrantzitsua matrikula egitea izango da: lagundu ezazu ikastegiko idazkaritzara, matrikula egiteko.

AUKERA ONA: Posible baldin baduzu, eraman ezazu ikasle bisitatzailea zure irteera batera (zerbait hartzera, pintxoak ezagutzera, mendira, estropadetara, etab.) gustora sentitu dadin.

7. Lehenengo hiru asteetan, erreserba ezazu denbora pixka bat, ikasle bisitatzailearen kezkak, zalantzak edo galderak konpontzeko: telefonoaren SIM txartela, bizikletaren bat, ekitaldi kulturalak hirian...

### **UPV/EHUko adostasuna**

Izen/abizenak:

Sinadura: